


Shakespearearen arabazozoak Central Parken




**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

New York, 1890eko martxoaren 6a. Amerikako Aklimatazio Elkarteak kideek, Eugene Schieffelin presidentea buru zutela, 60 arabazozo askatu zituzten Central Parken, hiriaren bihotzean. Lehen aklimatazio elkarteak Parisen sortu zuten 1854an eta berehala beste hainbat hiri eta herrialdeetan antzeko erakundeak sortu zituzten. Aklimatazio elkartearen helburua “eskuale jakin bateko biodibertsitatea munduko beste toki batzuetako animalia eta landareekin aberastea” zen. Asmo onarekin jarduten zuten aklimatazio zaleek, baina, egun dakigunez, espezieak nahasteak hondamen ekologikoa dakar.

Eugene Schieffelinek (1827-1906) bi zaletasun zituen: txoriak eta Shakespeare. Baita bi pasio horiei emateko nahi adina denbora eta baliabide ere; industria farmazeutikoan aitzindari izan zen familia aberats batekoa zen. Eta halako batean, bi zaletasunak batu zitzaizkion bururatu zitzaion, horretarako Aklimatazio Elkartearen zuen kargua baliatuz: Shakespearearen obratan aipatzen diren txori espezie guztiak sartuko zituen AEBetan.

Espezie autoktonoen mesederako, elkartekideen eta presidentearen lehen ahaleginek porrot egin zuten: hegatzabala, txoka eta birigarroa ez ziren ugaltu ingurune berrian. 1890eko negu amaiera hartan askatutako arabazozoekin ere berdin gertatzen ari zenez, hilabete batzuk geroago beste 40 ale utzi zituzten



MARTIN DROESHOUT ZAHARRA / HENRY E. DRESSER

Eugene Schieffelinek bi pasio zeuzkan: Shakespeare (ezkerrean) eta txoriak (eskuinean, arabazozo pareak). Bi zaletasunak elkartzea bururatu zitzaionean, nahi gabe, hondamendi ekologikoa eragin zuen.

parkean. Alferrik, hurrengo negu hurbildu ahala arabazozoak banan-banan erortzen hasi baitziren.

Baina ale gutxi batzuek, ironikoki, Central Parken bertan dagoen Historia Naturalaren Museoan aurkitu zuten babesa. Negu hura gaintu zuten, eta hurrengoak ere bai, eta 1900 urterako hiri guztian hegan ikus zitezkeen Europatik eramandako txoritxoak. 1920ko hamarkadan AEBen ekialde osoa hartu zuten. Eta 1950 inguruan, Kaliforniara iritsi ziren, hau da, herrialdearen beste muturrera. 1960. urtean arabazozoek

aire istripu bat eragin zuten; hegazkinak saldo batekin topo egin, kontrola galdu eta lurra jo zuten, tripulazio osoaren heriotza eraginez.

Baina zorigaiztoko pasadizo horrez gain, arabazozoen izurriak ondorio larriagoak ere eragin zituen eta eragingo ditu. Egundik 200 milioi arabazozo inguru bizi dira Ipar Amerikan. Labore lurrak suntsitzen dituzte eta milioika dolarretako galerak eragin nekazaritzan. Gainera, gaixotasunak zabaltzen dituzte, eta haiekin lehiatu ezin duten bertako espezie asko desagertzeko bidean jarri. ●

4.000 urteko emakume suediarra

1923an emakume baten eskeletoa aurkitu zuten Suedian. Eskeletoa oinarrituta, eta 3D teknologiarik eta Oscar Nilssen paleoartistaren eskuari esker, Lagmansörengo emakumea eskultura hiperrealista da orain. Baina Helena Gjaerum arkeologoaren ekarpena ere ezinbestekoa izan da, eskeletoaren DNA

oso hondatuta baitzegoen, eta jantzien arrastorik ez zutelako topatu. Gjaerumek Neolito amaierako klima eta fauna aztertuta ondorioztatu du emakumeak zer jantzi eta osagarri erabili zituen, eta migrazio mugimenduetan oinarrituta erabaki du azalaren, ilearen eta begien kolorea. ●



OSCAR NILSSON, VÄSTERNORRLANDS MUSEUM